

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Diputatu Kontseiluaren 2/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 21ekoa. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Araua aldatzen duena**

Uztailaren 10eko 9/2015 Errege Lege Dekretuak aldatzen ditu ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako karga tasa jakin batzuk, establezimendu iraunkor gabeko zergadunek eskuratutako errenten zergapetzearen arloan.

Ekonomia itunak xedatutakoaren arabera, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga itundutako zerga bat da, eta Estatuak une bakoitzean ezarritako arau oinarritzko eta formal berberak zuzenduko dute, salbu Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen establezimendu iraunkorraren bidez eskuratutako errentak.

Horrenbestez, Arabako zerga sistemara sartu behar da ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako karga tasen aldaketa, establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunek eskuratutako errenten zergapetzeari dagokion arloan.

Azterturik Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 8. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege jaurbidearenak, Foru Aldundiari ematen dizkion ahalmenez baliatuta, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga aldatzea.

Aldatu egin da ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, xedapen gehigarrietatik hamargarrenean xedatutakoa. Honela idatzita geratuko da xedapen hori:

“Hamargarrena. 2015ean aplikatuko diren karga tasak.

2015. urtean, uztailaren 12a baino lehen sortutako zergetarako, karga tasa ez da izango foru arau honetako 25. artikuluko 1. idatz zatiko a) eta f) letretan ezartzen dena, ehuneko 19, baizik eta ehuneko 20. Tasa horiek ehuneko 19,5ekoak izango dira zerga egun horretatik aurrera sortzen bada.”

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean, eta 2015eko uztailaren 12tik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.

Arabako Foru Aldundiari baimena eman zaio Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Biltzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Biltzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 21a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*

*JOSE LUIS CIMIANO RUIZ*

*Ogasuneko zuzendaria*

*JUAN IGNACIO MARTINEZ ALONSO*